



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2024KO AZAROAREN 25EAN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2024ko azaroaren 25ean, arratsaldeko 19:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Santos Etxegia Oronoz alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Belouqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Julen Beunza, Javier Auza, Alaia Etayo eta Micaela Elizalde.

BERTARATU EZ DIRENAK. Iker Isiegas eta M^a Mar Ansorena.

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDAA

1.- Aurreko aktaren onespena.

Urriaren 30eko ohiko batzarreko akta a emailaz bidali zena aho batez onartzen dute bildutakoek.

2.- Alkate ebazpenak

- 2024/ 119 alkate ebazpena Arraratsko Lardi etxeko teilatua eta fatxadak egokitzeko obra baimena ematea onartuz.

-2024/120 alkate ebazpena Aizarotzko Erdiko Karrik a2 B helbidean dagoen etxebizitzan aterpe egiteko obra baimena onartuz.

-2024/121 alkate ebazpena Apeztegiherri udal eraikinaren bigarren pisuko gela erabiltzeko, Azaroaren 10ean 9:30etatik 14etara Iyengar yoga ikastaro bat egiteko.

-2024/122 alkate ebazpena Igoako 9. Poligonoko 293. Lursailean dagoen eraikinaren helbidea aldatzea Natividad 2 helbidetik Gerezieta zenbakirik gabera.

-2024/123 alkate ebazpena iharduera ez kaltegarria onartuz Itsasoko 4. Poligonoko 461, 453, 452 eta 460 lursailetan 15 zaldi edukitzeko.

-2024/124 alkate ebazpena Basaburuko udaleko garbiketa lanpostuak betetzeko Begoña Arano Galarza eta Maite Barberia Azpiroz izendatzeko proposamena egitea.

-2024/125 alkate ebazpena onartuz Oier Legarra Beunzak aurkeztutako alegazioa eta hortaz Barañaingo Lagunak udal zerbitzuetako lan eskarmendua balorazioa sartu eta kontutan hartu ere Soldadura 151B ikastaroa eta Zurgintzako eta altzarigintzako goimailako teknikariaren titulua eta bestetik onartuz baina zati batean Aitor Arangoa Mariezkurrenak aurkeztutako alegazioa eta hortaz Geomatika eta Topografia Ingenieritza Graduaren titulua eta berau balorazioan sartu baina ez aldiz Tiebas proiektuaren baitan egindako formakutza, hau ez baita ikastaro gehiagarri bat.

- 2024/126 alkate ebazpena M^a Pilar Iribarreni ezinduen txartela onartuz.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte orain arte egindako alkate ebazpenak.

3.- 2024. Aurrekontuari aldaketa. Hasierako onespena.

Alkateak adierazten du ogasun batzordean aztertu direla aurrekontuari egin beharreko aldaketak eta irakurri dela idazkari kontu hartzaileak egindako txostena. Aurrekontu hauen helburua da kasu batzuetan aurrekontuan ez zeuden partidak sortzea eta beste kasu batzuetan gastuen aurreikuspena gainditua duten partidak igotzea, beste partidetan dagoen gerakina erabiliz.

Hau da aurrekontua aldaketak zehazten dituen txostena:

“ **-2024/1 aurrekontu aldaketa:** Sasturain etxeko beheko solairuko obraren partida sortu beharra dago, behin behineko aurrekontuan ez baitzegoen.

Gastu honi aurre egiteko sarreretan partida sortuko da, bien kasuan bai gastu bai sarreretan 200.000 euroko aurreikuspenarekin sortuko da. Sarrera hau Eskubide Sozialeko Departamentuak onartutako laguntza baten bidez iritsi da.

Aurrekontu aldaketa hau 1998/270 Foru Dekretuaren 44 eta 47 artikuluetan arautzen den moduan, tramitazioa aurrekontuaren onespenerako berdina litzateke, hots hasierako onespena batzarrean egin eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren 15 egun baliodunen epean jende arrear espedientea egotea alegazioak aurkezteko izateko.

-2024/2 aurrekontu aldaketa. Modu berean kontsultategiko barruko argiteria aldatzeko gastua ere ez zegoen behin behinekoan onartutako aurrekontuan, hots gastuen partida sortu behar da eta gastu horri aurre egiteko dirulaguntza izanik Nafar Gobernutik jaso dena, gastuen kopuru berean. Aurrekontu aldaketa hau 1998/270 Foru Dekretuaren 44 eta 47 artikuluetan arautzen den moduan sarrerekin sortutako kreditu bidezko aurrekontu aldaketa bezala tramitatu da.

Kasu honetan gastua eta sarrerak aipatu bezala kopuru berekoak dira, 3.351,82 eurokoak

-2024/3 aurrekontu aldaketa. Urrian zehar burutu diren autokontsumo eta energia berriztagarrien hitzaldien programa ere ez zen aurreikusi aurrekontuan eta hortaz gastu honek ere ez du partidarik. Programa honen gastua 2.117,50 eurokoa da eta partida sortzeko kreditua Osasuna bultzatzeko programaren partidatik hartuko da, bertan gerakin erabilgarria baitago, hortaz eta 1998/270 Foru Dekretuaren 41. Artikulua jarraituz kreditu transferentzia bidezko aurrekontu aldaketa baliatuko da gauzatzeko. Horta partida aipatutako 2.117,50 eurorik sortuko da eta Osasuna bultzatzeko programen aurreikuspena 2.117,50 eurotan murriztuko da eta hortaz honen behin behineko kreditua 4913.54 eurotan geldituko da.

-2024/4 aurrekontu aldaketa. Aurrekontu aldaketa honen funtsa da 1.2.1 poltsari gerakina ematea. Bertan dagoen Kontratutako langabetuen ordainsariaren aurreikuspena gaitutua gelditu da eta jada 2.7838,84euro negatiboan dago. Hortaz eta kreditu transferentzia bidezko aurrekontu aldaketarekin Osasuna bultzatzeko programaren partidatik 3.306,23 euroko soberakina erabiliko da, partida honen kreditua 16070.31 eurotan utzita.

-2024/5 aurrekontu aldaketa. 1.3.1 poltsan 0.-3 eskolako langileen ordainsariak daude, egun urriko gastua barne gelditzen den gerakina 20.978,91 eurokoa da baina kontutan hartua oraindik ere 3 ordainsari onartzeko gelditzen direla 7000 euro inguruko kreditu gehitu beharko litzaioke poltsa horren gerakinari.

Hortaz 1998/270 Foru Dekretuaren 41. Artikulua jarraituz kreditu transferentzia bidez beharrezko den gerakina Helduendako gimnasia aparatuen partida erabiliz sortuko da, bertan dauden 10.500 euro erabilgarria bai daude.

-2024/5 aurrekontu aldaketa Euskara Mankomunitateko ekarpenaren partida 6.554 eurotan gaitutua dago haren aurreikuspenetan, behin behineko kreditua 18000 eurokoa izan zen eta onartutako gastuak 26.554, 45 eurokoak dira, hots kreditu transferentzia bidez, falta den kreditua gauzatua gabe geldituko den maileguaren amortizazioaren partidatik hartuko dira beharrezkoak diren 8.500 euro inguruko soberakina. Maileguaren amortizazioaren partidan 37.000 euro daude erabilgarri.

Bukatzeko **2024/6 aurrekontu aldaketa** geldituko litzake onartzeko. Eskola jarduera osagarrien partidarako beharko litzateke aurrekontu aldaketa, partidaren aurreikuspenak 1900 eurokoak izan ziren baina gastua 4900 eurokoa. Beharrezkoa den kreditua maileguaren amortizazioaren partidatik hartuko da, 3000 euro. Kreditu transferentzia bidezko aurrekontu aldaketa burutuko da eta amortizazioaren partida 3.000 eurotan murriztu.”

1990/6 Nafarroako Tokiko Administrazioako 270. Artikuluan zehazten den moduan bildutakoek hasiera batez onartzen dituzte 2024ko aurrekontu aldaketak eta 15 balioduneko epean espedientea jende arrear egin dadin agintzen duten

4.- Mozioak:

2024ko euskararen nazioarteko egunaren arira ondoren transkribatzen den mozioa irakurtzen da:

2024ko Euskararen Nazioarteko Egunaren atarian, Udalak honako adierazpen hau onartu du:

Euskararen biziberritze prozesuak susperraldi egoera bizi izan du azken hamarkadetan, baina badira urte batzuk euskararen egoera bidegurutzean dagoela entzuten hasiak garena. Euskararen gaur egungo egoera zein den ulertzeko lñaki lurrebasoren doktore tesiak proposatutako ikuspegi berriak edota Euskaltzaindiaren gogoeta gunek ere argi erakutsi eta adierazi dute jauzi sendoak emateko unea iritsi zaigula.

Euskara bi hizkuntza hegemonikorekin talka egoeran dagoen hizkuntza gutxitua izanik, aldeko hizkuntza politikak egin beharra ezinbestekoa da euskarari eutsiko badiogu. Gainera, globalizazio egoerak, aldaketa demografikoek eta digitalizazioak, besteak beste, ez dizkigute errazten hizkuntza gutxituak indarberritzeko aukerak. Dugun errealtatea, euskararen egiturazko arazoei heltzeko azken aukera izan daiteke. Jauzi berria emateko unea da, aurrerantz egiten ez badugu atzerantz egingo dugulako. Datuek horixe erakusten digute: euskal herritarren %13k erabiltzen du euskara erdarak baino gehiago; %8 aritzen da euskaraz erdaretan baino errazago; eta, transmisioari erreparatuz gero, Hegoaldeko haurren %17k jaso du etxean euskara nagusitasunez. Era berean, euskal herritarren %4 soilik bizi da euskara nagusi den eremuetan. Alegia, euskaraz normaltasun erlatibo bizi daitekeen gunetan. Gainera, gune horiek ahultzen ari zaizkigu. Horrenbestez, ELEN Europako Hizkuntza Gutxituen sareak eta Euskalgintzaren Kontseiluak adierazi berri duten bezala, guk ere euskara larrialdi linguistikoan dagoela adierazi nahi dugu.

Horrez gain, nabarmendu behar dugu, joera soziolinguistikoaz harago, epaitegietatik ere euskararen aurkako neurriak hartzen jarraitzen dutela. Gure hizkuntzaren aurkako oldarraldian murgilduta jarraitzen dugu.

Horri guztiari aurre egiteko, inoiz baino gehiago, euskararen aldeko neurriei tinko heldu behar diegu, eta jauzi handi bat eman norabide egokian.

Eginkizun horretan berebiziko garrantzia dute arnaguneek eta udalerri euskaldunek, horiek erakusten dutelako posible dela euskaraz bizi den herria. Hizkuntza guztiek behar dituzte beraiek nagusi diren eremuak, hizkuntza naturalki transmititzen den eremuak, hizkuntza garatu dadin, normalizatuz eta zabalduz. Horregatik, gune euskaldunek ardura dute jauzi berri hori irudikatzeko eta bide erakusle izateko. Guk erantzukizun hori geure egiten dugu, eta konpromisoa hartzen dugu zeharkako hizkuntza politika aurrerakoia indartzeko.

Azken hamarkadetan euskara mantentzeko eta zabaltzeko gai izan bagara, aurrerantzean ere horretan jarraitzeko bizi-indarra izango dugu. Olatu berria sortzeko unea orain da, eta olatu horren eragile izango da Udala ere.

Bildutakoek aho batez onartzen dute irakurritako mozioa.

5.- Batzordeen informazioa.

Hezkuntza Batzordea. Alaia Etayok ematen du informazioa.

Zintzilik dago haur eskolako zuzendariarekin bilera egitea, ikasturte erdiko bilera, bertan haiek egindako hainbat eskaera aztertu eta erantzuna emanen zaie. Eskaera horien artean daude aspiragailu berria erostea, errefortzurako langile bat kontratatzea eguadiako orduetarako eta beste..

Garraioarekin lotuta, gurasoen bileran adostu bezala, familiak ikastetxetan haien seme alaben eskola errendimenduan, garraioan ordu luzez egotea egiaztatzen duen txostenak eskatzen ari dira, ondoren Hezkuntza Departamentuan kexa adierazteko.

Leitzako udalean egitasmo berria burutzen ari dira eta eskolako jantokia erabiltzen hurbileko produktuekin egindako menuak egiteko eta bertan ere udaleko beste egoitzetarako menuak prestatzeko, hots eguneko egoitza...

Egitasmo hori aztertuko da ere udalen, Jaunsaratsko eskola eta eguneko egoitza proiektu bera egin ahal izateko.

6.- Informazio orokorra.

Alkateak ondoren zehazten den informazioaren berri ematen die bildutakoei:

- Komunitate energetikoen azken bilera burutuko da azaroaren 26an Jaunsaratsko Apeztegiberrin.
- Elikadura mahiaren bilera burutu da eta bertan aurkeztu Mimua enpresak egindako txostena Lekunberriko eguneko egoitzan eta beste zerbitzu publikoetan KM0ko menuen funtzionamenduari.
- Cederna Garalurrek deialdi berria aterako du coworking espazioen ekipamendua finantzatzeko. Basaburuko udalaren kasuan, Apeztegiberriko lehen solairuan bulegoak eta bilerak burutzeko gelak jartzeko ekipamendua kontutan hartuko dute.
- Ultzama- Basaburua eta Imotz lotzen dituen senden bideak egokitzeko proiektuaren aurkezpena egin da.
- Estabilizazio prozesua aurrera doa eta ikusita lanposturen bat hutsik gelditu ahal dela, kontsulta juridikoa egingen da egoera horri aurre egiteko zailtasunak argitzea.
- Cedernak etxebizitzaren egoeraren inguruan lanketa bat burutzen ari da eta udal planaren berrikuspen prozesuari hasiera emateko erabili ziren inkestak

bideratuko zaizkie, haiek aztertu ditzaten Basaburuaren egoera ondorioztatzeko.

- Beramendiko urbanizazioko bi lursailen salerosketa eskriturak sinatu ziren azaroaren 21ean, eta udalari dagokion %10eko txekak kobratu.
- Plantilla organikoan euskararen eskakizunaren ingurua kontsulta egin da UEMA-n, jakiteko udalak UEMA-k baino irizpide altuagoak dituen D eta E mailen euskara eskakizunetan. Horren ondorioz zonaldeko euskara teknikariak txosten bat egin du adieraziz 2017an onartutako euskararen ezagutzaren foru dekretuaren arabera D mailako gutxieneko ezagutza lanpostu elebidunetan B1 zela eta horregatik irizpide hori erabili zen plantilla ezaugarri horiek jarritz.

7. Erregu-galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez 19:55 direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.